

Diasporan euskara ikastetik irakastera

Argentinako eta Uruguako 23 euskara irakasleak bi hilabeteko barnetegia egingo dute Euskal Herrian

JAKES GOIKOETXEA
Donostia

2004an ia hutsetik hasi eta euskara ikasi dute. Euskal Herriatik kanpo, euskal etxeetan. Boga autoikas-kuntzako Interneteko sistema eta Euskal Herriko euskara irakasle-ek egindako tutoretzak baliatu dituzte horretarako. Baita beren opor egunetan egindako barnetegiak ere. Baina euskara ikasteaz gain, euskal etxeetan edo atzerriko unibertsitateetan euskara irakasle izateko prestatzen ari dira. Argentinako eta Uruguako 23 euskara irakaslegai Euskal Herria etorri dira beren prestakuntza osatzeko, eta bi hilabeteko barnetegia egingo dute Lazkaoko (Gipuzkoa) Maizpide euskaltegian. 23 horietatik bederatzik ekainera arte egongo dira Euskal Herrian.


23 irakaslegaietako gehienek euskara irakasle lanak egiten dituzte euskal etxeetan, oso oinarriko mailatan. Beren maila hobetzera etorri dira Euskal Herria: asmoa da gehienek Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen (HABE) curriculumeko bigarren maila lortzea, eta egonaldi luzeagoa egingo duten bederatziek hirugarrena, euskararen gaitasun agiriaren parekoa (EGA).

Guztira 1.946 euskara ikasle izan dira 2006-2007 ikasturtean mundu osoko euskal etxeetan, *Euskara munduan* programaren bitartez. Programaren helburu nagusia da munduko euskal etxeetan euskarazko eskolak ematea eta euskal hiztunak sortzea. Hiru lan ildo ditu: irakasleak trebatzea, euskal etxeak euskarazko eskolak emateko materialez hornitzea eta euskara ikastaroak diruz laguntzea (210.000 euro aurten).

Azken lau urteetan Argentinako 36 euskara irakaslegai eta Uruguako lau aritu dira lanean, bi taldetan antolatuta: Diaspora I eta Diaspora II. Diaspora II taldea aurre-ratuagoa da, eta bertako kideak izango dira egunotan Euskal Herrian. «Seguru dakigu euskara ikastaro trinkoa eginda eta euskal giroan murgilduta biziz euskaraz ongi trebatu irizuliko direla beren herrialdera», esan zuen atzo Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak.

Eusko Jaurlaritza Argentinan izandako esperientzia AEBetara eramaten saiatuko da. Horretarako, euskara irakaslegaien talde bat sortuko du bertan, eta Kanadako eta Mexikoko euskal etxeei parte hartzeko aukera eskainiko die.

■ euskara ikasleak euskal etxeetan. 2006-2007ko ikasturtea



(TURRIA: EUSKO JAURLARITZA; KOLONBIATIA: EUSKO JAURLARITZA)



Argentinatik eta Uruguaitik Euskal Herria etorri diren euskara irakaslegaietako batzuk. MADDI SORIO/ARGAZKI PRESS

«Abestiak ulertzeko hasi nintzen»

J. GOIKOETXEA
Donostia

Aitaren aldeko amona euskalduna zen, nafarra, eta horrek bultzatu zuen La Platako (Argentina) euskal etxera joatera. «Euskarazko abestiak ulertzeko hasi nintzen euskara ikasten, eta gero eta gehiago gustatu zait». Maria Emilia Cairo da, Argentinatik Euskal Herria etorri den euskara ikasle eta euskara irakaslegai. «Asmoa aurre-na ikasi eta gero irakastea da, ume-ei eta helduei», dio prentsaurrekoan, agintarien artean. «Gure ustez, euskarak leku garrantzitsua du eduki behar du euskal etxe batean. Norbaitek lana egin behar du, eta hemen gaude horretarako».

Maria Emilia Cairo 2002an hasi

zen euskara ikasten La Platako euskal etxean. Astean behin sartzen zen Boga Interneteko euskara ikasteko autoikas-kuntza sisteman. Lazkaoko Maizpide euskaltegitik (Gipuzkoa) ariketak bidali eta zuzentzen zizkieten. Horrez gain, udan eta neguan bi asteo edo astebeteko barnetegiaren parte hartzen zuen. Mintzapraktika lantzeko batez ere, euskaraz hitz egin ahal izateko. «Eta hemen gaude», esan du Maria Emilia Carok. Donostian, prentsaurreko batean galderak euskaraz erantzuten, Argentinan euskara irakasteko prest.

EREDU. «Beraz», esan du Joseba Erkizia HABEko zuzendari nagusi-

siak, «talde honek euskara euskararen esparru geografiko naturaletik kanpo ikasi du, eta azpimarratzekoa da».

Maria Emilia Cairo eta harekin batera Euskal Herria etorri diren 22 lagunak eredutatzat jarri ditu Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak. Euskara Euskal Herri-kanpo ikasi dutelako eta euskara irakasteko gai direlako: «Maria Emiliak erakusten du argi eta garbi topiko bat besterik ez dela euskara ikastea oso zaila edo ezinezkoa dela dioen hori. Bera da publizitate-terik onena euskal herritarrek kontura daitezen euskara ikastea oso posible dela, ahalegintxo batekin».

Lau euskaldun daude jesuiten jenerala izateko hautagaien artean

ERREDAKZIOA
Iruñea

Atzotik, Jesusen Lagundiaren 35. Batzar Nagusia egiten ari dira mundu osoko 225 jesuita, Vatikanon, haien jenerala nor izanen den erabakitzeko. 217k dute bozkatzeko eskubidea, eta, ziurrenik, jesuiten buru izango dena haien artean egonen da, nahiz eta edozein jesuita aukeratzeko ahal duten. Euskal herritarrik ere bada batzar horretan, eta haietako hiru daude hautagaien artean.

Orain arteko jenerala Peter-Hans Kolvenbach herbeheretarra izan da. 1983an hartu zuen aginte makila, Pedro Arrupe haren aurreko jeneralaren eskutik. Jesuiten konstituzioaren arabera, prepositu jeneralaren kargua hil artekoa da, eta soilik berria aukeratzeko dute ordu artekoa hiltzen bada, gaixotasun larriren bat baldin badu, edo berak kargua uztea erabakitzen badu. Arrupek, bere garaian, kargua utzi zuen, zahar eta gaixo zegoelako. Kolvenbachek antzeko argudioak baliatu ditu dimisioa emateko.

Eztabaidak ezkutuan egiten ari dira, ez dago hautagai ofizialik, eta ez dute kanpainarik egiten. Hori dela eta, jeneral izan daitezkeen jesuiten inguruko zurrumurruak eta kinielak anitz izan dira. Horietan bada Euskal Herriko jesuitarik. Zenbait iturriren arabera, Juan Miguel Arregi Loiolako probintzialak, Koldo Alzibar administratzaileak eta Patxi Alvarez Alboan fundazioko alboko zuzendariak badute aukerarik, bai eta Erromako kurian lan egiten duen Ignacio Etxartek ere.

EUROPA ETA BERTZEAK. Bertze iturri batzuek, ordea, bertze izen batzuk ematen dituzte, eta Europaren eta bertze kontinenteen arteko nor-gehiagoa izanen dela diote. Inazio Loiolakoak Lagundia 1540an sortu zuenetik, lehenbizikoz, Asiako, Afrikako eta Hego Amerikako jesuitak gehiago izanen dira batzar nagusian, europarrak baino. Hori dela eta, Lisbert D'Souza indiararen izena aipatu izan dute, Kolvenbachen kolaboratzaile estua izandakoa.

Aldiz, beste batzuek uste dute orain arteko joera aldatu eta Federico Lombardi dela hautagai nagusia. Lombardi Benedikto XVI.a aita santuaren bozeramailea da, Vatikanoko irratiko eta telebistako zuzendaria eta prentsa aretoko arduraduna baita.

Eliza katolikoko lagundirik handiena da jesuitena. 19.000 kide baino gehiago ditu. Prepositu jeneral berria aukeratzeko epe zehatzik ez dute; baliatze asteak edo hilabeteak behar izatea.